


**EUSKAL HERRIKO
AGINTARITZAREN
ALDIZKARIA**



**BOLETÍN OFICIAL
DEL
PAÍS VASCO**

Itundutako posta-ordaina: 8/98

Internet
www.euskadi.net

Franqueo concertado: 8/98

Administrazioa: Donostia kalea, 1
Legezko Gordailua: VI – 286 – 78 – VITORIA-GASTEIZ

Administración: c/ Donostia–San Sebastián, 1
Depósito Legal: VI – 286 – 78 – VITORIA-GASTEIZ

Xedapen Orokorrak

**NEKAZARITZA, ARRANTZA
ETA ELIKADURA SAILA**

AGINDUA, 2007ko irailaren 24koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, landare-jatorriko produktuen ekoizpen integraturako arau tekniko orokorra onartzen duena.

Disposiciones Generales

**DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA,
PESCA Y ALIMENTACIÓN**

ORDEN de 24 de septiembre de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se aprueba la norma técnica general de producción integrada para productos de origen vegetal.

I. ERANSKINA AGINDUA, 2007KO IRAILAREN
24KOA, NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA
ELIKADURA SAILBURUARENA,
LANDARE-JATORRIKO PRODUKTUEN EKOIZPEN
INTEGRATURAKO ARAU TEKNIKO OROKORRA
ONARTZEN DUENA

LANDARE JATORRIKO PRODUKTUEN EKOIZPEN
INTEGRATURAKO ARAU TEKNIKO
OROKORRA

SARRERA

Arau honek Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan landare-jatorriko nekazaritza- eta elikadura-produktuen ekoizpen integratuko sistema, laborea edozein dela ere, modu eraginkor eta koherentean gauzatu ahal izateko gai organiko eta tekniko orokorreki heltzen die.

Ekoizpen integratuko sistema labore zehatzen berriazko arau teknikoekin osatzen da, eta berriazko arau horiek beti arau orokor honi lotzen zaizkio.

Ingurumena errespetatzen duten, produktu kimikoen erabilera murrizten duten eta kalitatezko nekazaritza-ekoizpenak lortzeko aukera ematen duten metodoen erabileran oinarritzen den ekoizpen-prozesuak bete behar dituen baldintzak ezartzen ditu arau orokor honek.

Honako hauen inguruko alderdiak arautzen dira: nekazaritzak ingurumenean duen eragina kontrolatzea, nekazaritzako lurzorua kudeaketa, lurzoruen eta uren kontrol analitikoak, landare-materialaren kalitatea, laborantzako jardueren eragina, produktu fitosanitarioen erabilera eta prozesu horretan sortutako azpi-produktuen kudeaketa, uzta-hondarrak, inausketa-hondarrak, fruituak bakantzea, etab.

Ekoizlearen beraren segurtasunari loturiko neurriak nabarmentzen dira, eta laneko ekipo eta instalazioak mantentzeko baldintzak eta prestakuntza-premiak zehazten dira.

Elikagaien segurtasuna ere sustatzen da, eta produktu fitosanitarioen hondakinak kontrolatzeko eta produktuak identifikatzeko eta haien trazabilitaterako sistemak ezartzen dira.

Neurriak ezartzen dira sistema oro ziurtatzeko modukoa izan dadin; laborearen inguruko eragiketa guztiak erregistratzean oinarritutako kalitatezko sistema bat eskatzen da, ustiapen-koadernoekin eta/edo manipulatzailearen koadernoekin, sarrera- eta irteera-albaraneekin, gomendio teknikoak erregistratuta eta sistema osoaren barruko eta kanpoko kontrolak eginda.

Gomendioak eta bete beharreko baldintzak ezartzen dira prozesuaren fase bakoitzerako. Testua zutabe bakarreko taula batean jaso dago eta, edizioak ahalbidetzen duen neurrian, kolore desberdinez agertzen dira gomendioak eta bete beharreko baldintzak.

ANEXO I A LA ORDEN DE 24 DE SEPTIEMBRE DE
2007, DEL CONSEJERO DE AGRICULTURA, PESCA
Y ALIMENTACIÓN, POR LA QUE SE APRUEBA LA
NORMA TÉCNICA GENERAL DE PRODUCCIÓN
INTEGRADA PARA PRODUCTOS DE ORIGEN
VEGETAL

NORMA TÉCNICA GENERAL DE PRODUCCIÓN
INTEGRADA PARA PRODUCTOS DE ORIGEN
VEGETAL

INTRODUCCIÓN

En esta norma se abordan cuestiones orgánicas y técnicas de carácter general que posibiliten la ejecución eficaz y coherente en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco del sistema de producción integrada de productos agrarios y alimentarios, de origen vegetal, cualquiera que sea el cultivo.

El sistema de producción integrada se completa con las normas técnicas específicas de los cultivos concretos, que siempre hacen referencia a esta norma general.

Esta norma general establece los requisitos que debe cumplir un proceso productivo que se base en la utilización de métodos más respetuosos con el medio ambiente que disminuyan el uso de productos químicos y permitan obtener producciones agrícolas de calidad.

Se regulan aspectos relacionados con el control del impacto ambiental generado por la agricultura, gestión del suelo agrícola, controles analíticos de suelos y aguas, calidad del material vegetal, impacto de las prácticas culturales, manejo de productos fitosanitarios, y la gestión de los subproductos generados en dicho proceso, restos de cosecha, de poda, aclareo de frutos etc.

Se incide en medidas relacionadas con la seguridad para el propio productor especificando las condiciones de mantenimiento de equipos e instalaciones de trabajo y las necesidades de formación.

También se promueve la seguridad alimentaria, estableciendo sistemas de control de residuos de fitosanitarios e identificación y trazabilidad de los productos.

Se implantan medidas para que todo el sistema sea certificable, se exige un sistema de calidad basado en el registro de todas las operaciones relacionadas con el cultivo mediante cuadernos de explotación y/o manipulador, albaranes de entrada y salida, registro de las recomendaciones técnicas y realización de controles internos y externos de todo el sistema.

Para cada fase del proceso se establecen los requisitos de obligado cumplimiento y las recomendaciones. El texto se recoge en una tabla de una sola columna, en la que los requisitos obligados y las recomendaciones, en la medida que la edición lo permita, aparecerán con diferentes colores.

I. kapitulutik XIII. era deskribatutako baldintzak operadore-ekoizleari buruzkoak dira edo horri aplikatzen zaizkio; XIV. kapituluan operadore-manipulatzailerari edo manipulazio-zentroari dagozkion baldintza zehatzak jasotzen dira; eta gainerako kapituluak bi eragile-mota horiei zuzenduta daude.

EKOIZPEN INTEGRATURAKO EREMU ARAUPETZAILEA

31/2001 Dekretua, otsailaren 13koa, Ekoizpen Integratuari buruzkoa; dekretu hau da Euskal Autonomia Erkidegoan Ekoizpen Integratua araupetu duen oinarriko lege-eremua.

OINARRI ARAU-EMAILEA

Honako hauek hartu dira erreferentziako dokumentu gisa:

– UNE 155.000 araua, PNE155000 erreferentzia (2005eko maiatza): fruta eta barazki freskoak. Ekoizpen kontrolatua. Baldintza orokorrak.

– Nekazaritzako Jardunbide Egokietarako EUREP-GAPen Protokoloa, fruta eta barazki freskoei buruzkoa.

– 1201/2002 Errege Dekretua, azaroaren 20koa, nekazaritzako produktuen ekoizpen integratua araupetu duena.

Arau orokor hau argitaratzeko unean onartuta daude honako labore hauen berariazko arau teknikoak:

– Berotegiko barazkietan: tomatea, piperra, letxuga eta zerba.

– Zurezko laboreetan: kiwia eta mahatsondoa.

– Zerealetan eta jorra-landareetan: jateko patata eta azukre-erremolatxa.

TERMINOEN DEFINIZIOA

EAEko Ekoizpen Integraturako arau teknikoen multzoaren ondorioetarako, aplikagarri dira honako definizio hauek:

– Manipulazio-zentroa: operadore-manipulatzailerak, hau da, nekazaritza-ustiategiaren eta/edo nekazaritza-eta elikadura-enpresaren titullarrak Ekoizpen Integratuari atxikitako produktua manipulatzeko dueneko instalazio eta lan-baliabideen multzoa. Manipulazio-jarduerek barne hartzen dituzte produktuaren harrera, egokitzea, manipulazioa, prestaketa, biltegiatzea, kontserbazioa, ontziratzea eta bidaltzea, zentro-motaren arabera; barazki eta fruituen zentroa, upeltegia, azukre-lantegia edo bestelakoak.

– Uniformetasun-koefizientea (UK): ureztatze-sistemaren bidezko ur-banaketa uniformetasuna adierazten duen formula bat aplikatuta lortutako balioa.

Los requisitos descritos desde el Capítulo I al XIII se refieren o son aplicables al operador-productor, en el Capítulo XIV se describen los específicos del operador-manipulador o centros de manipulación y los restantes capítulos son aplicables a ambos tipos de operadores.

MARCO REGULADOR DE LA PRODUCCIÓN INTEGRADA

Decreto 31/2001, de 13 de febrero, sobre Producción Integrada, el cual constituye el marco legal básico que regula la Producción Integrada en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

BASE NORMATIVA

Se han tomado como documentos de referencia:

– Norma UNE 155.000, referencia PNE155000 (mayo 2005): Frutas y Hortalizas frescas. Producción controlada. Requisitos generales.

– Protocolo de Buenas Prácticas Agrícolas de EUREPGAP de frutas y hortalizas frescas.

– Real Decreto 1201/2002, de 20 de noviembre, por el que se regula la producción integrada de productos agrícolas.

En el momento de la publicación de esta norma general se encuentran aprobadas las Normas Técnicas Específicas de los siguientes cultivos:

– En hortalizas de invernadero: tomate, pimiento, lechuga y acelga.

– En cultivos leñosos: kiwi y vid.

– En cereales y plantas de escarda: patata de consumo y remolacha azucarera.

DEFINICIONES DE TÉRMINOS

A los efectos del grupo de normas técnicas de la Producción Integrada de Euskadi, son de aplicación las siguientes definiciones:

– Centro de manipulación: conjunto de instalaciones y medios de trabajo en las que el operador-manipulador, es decir el titular de la explotación agraria y/o de la empresa agroalimentaria realiza el manipulado del producto acogido a la Producción Integrada. Las actividades de manipulación pueden incluir la recepción, acondicionado, manipulado, elaboración, almacenamiento, conservación, envasado y expedición del producto, dependiendo del tipo de centro, central hortofrutícola, bodega, azucarera u otros.

– Coeficiente de uniformidad (CU): valor obtenido de la aplicación de una fórmula que indica la uniformidad en la distribución del agua aplicada por el sistema de riego.

– Kontrol biologikoa: agente kaltegarrien populazioa erregulatzeko sistema, arerio naturalak erabiltzen dituen.

– Kontrol integratua: sail landu bat ukitzen duten agente kaltegarri guztien populazioak erregulatzeko sistema, agente horien populazioak kalte ekonomikorik ez eragiteko moduko mailetan mantentzeko teknika eta kontrol-metodo guztiak kontuan hartzen eta erabiltzen dituen.

– Esku hartzeko irizpidea: izurri edo agente patogeno baten aurkako tratamendua egitea justifikatu ahal izateko baldintzen multzoa.

– Ustiapen-koaderno: laborantza-unitate eta ustiategiaren titular bakoitzaren dokumentazioa; bertan jasotzen dira laborantzaren datuak, laborearen gainean egindako eragiketak eta laborantzako teknikari ardura-dunak emandako jarraibideak, arau honek eta, zehazki, laborantzaren berriazko arauak ezartzen duten kasu guztietan.

– Manipulazio-zentroaren koaderno: dagokion manipulazio-zentroaren dokumentazioa, lan-erabiketen inguruko datuak biltzen dituen.

– Laborea: ekoizpen-espezie eta -orientazio bakoitzarako, nekazari batek kudeatzen duen ekoizpen osoa.

– Laboreak. Baratzeko laboreak (barazkiak): espezie usaindunak, urterokoak eta belar-tankerakoak izan ohi direnak, elikadura-interesekoak, eta beren fruitu, sustri edo tuberkulu, erraboi, zurtoin, infloreszentzia edo haziengatik lantzen direnak. Fruitu-laboreak: fruitu-espezieak, iraunkorrak eta zurezkoak izan ohi direnak, zuhaixka- edo zuhaitz-formakoak, enborra ongi bereizita izaten dutenak, elikadura-interesekoak direnak eta beren fruituengatik lantzen direnak, lehorreko zein ureztatutako lurretan. Barne hartzen dira mahatsondoa eta kiwia. Laborantza estentsiboak: estalperik gabeko azalera handitan egiten diren laborantzak, laborantza-prozesuaren alderdi guztietan erabateko mekanizazioa erabilita, azalera-unitate bakoitzeko ekoizpen- eta etekin-kostu baxuekin, beste laborantza batzuekin, berotegiko barazkiekin, fruta-arbolekin eta abarrekin alderatuta.

– Babestutako laborantza: laborantza hau barrunbe batean egiten da, material zeharrargitsuz estalitako euskarri-egitura batek sortutako barrunbean. Tunel hotza: klimatikoa ez den egitura. Tunel anitzekoa: hainbat modulu elkarri atxikita sortzen den egitura; kanpoko zutabeak kurbatuak ditu eta barrukoak bertikalak. Kapera anitzekoa: zutabe guztiak bertikalak dituzten moduluak elkarri atxikiz eratutako egitura.

– Arriskuaren zenbatespena: sail landuaren egoera fitosanitarioa kontrolatzeko eta ebaluatzeko aukera ematen duen sistema.

– Kontrol-erakundea: kontrol- eta ziurtatze-lanak egiteko akreditatutako erakundea.

– Control Biológico: sistema de regulación poblacional de agentes nocivos utilizando enemigos naturales.

– Control Integrado: sistema de regulación de poblaciones de los diferentes agentes nocivos que afectan a un cultivo, considerando y utilizando todas las técnicas y métodos de control apropiados a fin de mantener las poblaciones de estos agentes a niveles que no causen daños económicos.

– Criterio de intervención: conjunto de condiciones que permiten justificar la realización de un tratamiento contra una plaga o agente patógeno.

– Cuaderno de explotación: documentación por unidad de cultivo y titular de explotación donde ésta queda identificada y en el que se recogen los datos del cultivo, las operaciones efectuadas sobre el cultivo y las instrucciones dadas por el técnico responsable del cultivo, en todos los casos en los que así lo estipule esta norma y las específicas del cultivo en concreto.

– Cuaderno del centro de manipulación: documentación por centro de manipulación donde éste queda identificado y en el que se recogen los datos relativos a las operaciones de trabajo.

– Cultivo: para cada especie y orientación productiva, la totalidad de la producción que gestiona un agricultor.

– Cultivos. Cultivos hortícolas (hortaliza): especies olerícolas, usualmente anuales y de porte herbáceo, de interés alimenticio, y que se cultivan por sus frutos, sus raíces o sus tubérculos, sus bulbos, sus tallos, sus inflorescencias, o sus semillas. Cultivos frutales: especies frutícolas, usualmente perennes y de porte leñoso, con aspecto arbustivo o arbóreo y un tronco claramente diferenciado, de interés alimenticio, y que se cultivan por sus frutos, tanto en seco como en regadío. Se incluyen la vid y el kiwi. Cultivos extensivos: cultivos que se hacen en grandes superficies al aire libre, con mecanización total en todas y cada una de las facetas del proceso cultural, con costes de producción y rendimientos por unidad de superficie bajos en comparación con otros cultivos, hortícolas en invernadero, frutales etc.

– Cultivo protegido: cultivo que se desarrolla en el interior de una estructura visible que sirve de soporte y sujeción a una cubierta de material traslúcido. Túnel frío: estructura no climática. Multitúnel: estructura formada por la unión de varios módulos que tiene los pilares exteriores curvos y los interiores verticales. Multicapilla: estructura formada por la unión de varios módulos que tiene todos los pilares verticales.

– Estimación de riesgo: sistema que permite controlar y evaluar la situación fitosanitaria del cultivo.

– Entidad de control: entidad acreditada para realizar las labores de control y certificación.

– Ustiatagia: jarduera ekonomikoa dakarten ekoizpen-ondasunen multzoa.

– Gomendatu den edo gomenda daitekeen formulazioa. Gai aktibo fitosanitario baten edo ugariren formulazioa, sail landuaren erabilera fitosanitarioan kontrol kimikorako bitartekoren bat aplikatuz gero lehen aukera erabiltzen dena.

– Borroka integratua: neurri biologikoen, bioteknologikoen, kimikoen, laborantzakoen edo landare-hautaketakoen konbinazio baten aplikazio arrazionala, produktu fitosanitarioen erabilera izurriak kontrolatzeko beharrezkoa den gutxienekora mugatzeko moduan.

– Landare-materiala: espezie bereko landare berriak zentzuzko formatan ekoizten dituen materiala.

– Izurriak tranpa kromatropikoekin kontrolatzea: izurrien populazioaren dinamika aldatzea intsektuak erakartzen dituzten kolore batzuez pintatutako kartoi mehe gomaztatuen bidez.

– Labore iraunkorren instalazio berriak / sail berriak: eraikitako instalazioak (berotegiak, manipulazio-zentroak, etab.) edo aipaturiko baldintza arauan sartu ondoren egindako sailak. Berritutako instalazioak ere barne hartzen dira baldin eta berrikuntza horretan arauaren baldintza aplikagarri bada.

– Operadorea: pertsona fisiko edo juridikoa, Ekoizpen Integraturako arauen pean lortutako nekazaritzako ekoizkinak edo elikagaiak eskuratu, manipulatu, prestatu, ontziratu, etiketatu, biltegitatu edo merkaturatzen dituen.

– Partzela: geografikoki zehazturiko eta Katastroko Erregistroan titular baten edo gehiagoren izenean inskribatutako lur-azalera, non eta langileak ekoizpen integratuko jarduerak egiten dituen.

– Ekoizpen integratua: nekazaritzako eta/edo elikadurako ekoizpen-sistema, ekoizpen-baliabide eta -mekanismo naturalen erabilera handiagoaren alde egiten duena eta epe laburrera nekazaritza iraunkorragoa garatzen laguntzen duena, agronomia-metodoak sartuz, hala nola, lan kulturalak, ongarriztatzea, ureztatzea, borroka biologikoa edo kimikoa, ez sistematikoki baizik eta alde aurretiko ebaluazio teknikoaren eta aplikatu beharreko teknika edo tratamendua egokia den ala ez zehazten duen diagnostikoaren arabera, betiere ingurumena babestea gizartearen eskakizunekin eta nekazaritzako produktibitatearekin bateragarri eginez.

– Baldintza: betebeharrezkotasun edo debeku gisa adierazitako alderdi oro.

– Gomendioa: aplikatzea komeni den alderdi teknikoa, sistema honen nekazaritzako jardunbidea hobetzen laguntzen duena.

– Laborantza arduratzen den teknikaria: agronomiako kualifikazio tekniko egiaztatua duen pertsona, ustiategiaren titularrak edo ekoizleak izendatua, arau honetan ekoizleari aplikagarri zaizkion baldintzak be-

– Explotación: conjunto de bienes productivos que dan origen a una actividad económica.

– Formulación aconsejada o aconsejable: formulado de una o varias materias activas fitosanitarias que será utilizado como primera opción en el caso de aplicación de un medio de control químico en el manejo fitosanitario del cultivo.

– Lucha Integrada: la aplicación racional de una combinación de medidas biológicas, biotecnológicas, químicas, de cultivo o de selección de vegetales, de modo que la utilización de productos fitosanitarios se limite al mínimo necesario para el control de las plagas.

– Material vegetal: material que en sus diversas formas produce nuevas plantas de la misma especie.

– Monitorizar plagas con trampas cromatropicas: evolución de la dinámica poblacional de las plagas mediante el uso de cartulinas engomadas de determinados colores por las que algunos insectos se sienten atraídos.

– Nuevas instalaciones / Nuevas plantaciones de cultivos perennes: se refiere a las instalaciones (invernaderos, centros de manipulación, etc.) construidas o plantaciones realizadas con posterioridad a la inclusión del referido requisito en la norma. También se incluyen las instalaciones renovadas si en dicha renovación es aplicable el requisito de la norma.

– Operador: persona física o jurídica que obtenga, manipule, elabore, envase, etiquete, almacene o comercialice productos agrarios o alimentarios obtenidos bajo las normas de Producción Integrada en las condiciones establecidas en la presente Norma.

– Parcela: superficie de terreno geográficamente definida e inscrita en el Registro Catastral a nombre de uno o mas titulares, en la que el operador realiza las prácticas de producción integrada.

– Producción integrada: sistema de producción agrícola y/o alimentario que aboga por una mayor utilización de los recursos y mecanismos de producción naturales y facilita el desarrollo a medio plazo de una agricultura más sostenible, introduciendo en ella métodos agronómicos, como labores culturales, fertilización, riego, lucha biológica o química, no de forma sistemática sino en función de una evaluación técnica previa y un diagnóstico que determine la idoneidad o no de la técnica o tratamiento a aplicar, haciendo compatible en todo momento la protección del medio ambiente, las exigencias de la sociedad y la productividad agrícola.

– Requisito: todo aspecto expresado en términos de obligatoriedad o prohibición.

– Recomendación: aspecto técnico de aplicación deseable que contribuye a mejorar la práctica agrícola de este sistema.

– Técnico responsable del cultivo: persona con cualificación técnica agronómica acreditada, designada por el titular de la explotación o productor para responsabilizarse de asesorar, dirigir y controlar el cumplimiento

tetzen direla kontrolatzeko eta horiei buruzko aholkuak eman eta zuzentzeko.

– Manipulazio-zentroaz arduratzen den teknikaria: prestakuntza teknikoa edo lanbide-esperientzia duen pertsona, enpresak izendatua, arau honetan manipulatzaileari aplikatu dakizkiokeen baldintzak betetzen direla kontrolatzeko eta horiei buruzko aholkuak eman eta zuzentzeko.

– Ustiategiaren titularra; ekoizlea: pertsona fisiko edo juridikoa, nekazaritzako jarduera ustiatetikiko ondatsunak eta eskubideak enpresei dagozkien irizpideen arabera antolatuz eta ustiatetikiko kudeaketaren ondoriozko arriskuak eta erantzukizun zibil, sozial eta fiskalak bere gain hartuz burutzen duena.

– Zenit-aireztapena: berotegietako gailurrean jarritako aireztapen-sistema.

Definizio hauek luzatu egin ahal izango dira labore bakoitzaren berariazko arau teknikoetan.

I. KAPITULUA ALDEZ AURREKO BALDINTZAK

1. artikulua.– Erregistroko baldintzak.

1.1.– Teknikariaren bitartekoak: operadoreak, ekoizleak zein manipulatuzaileak, teknikari arduradun kreditatu baten zerbitzuak izan behar ditu, eta bere eginkizunak arau orokor honen eta aplikagarri diren laboreen berariazko arauen betetzea aholkatu, zuzendu eta kontrolatzea izango dira.

1.2.– Laborantza-unitateen definizioa: arau gisa, Ekoizpen Integratuari atxikitako laborantza-unitatea landutako azalera-unitate gisa definitzen da. Gerta liteke azalera-unitate hori osatzen du(t)en lur-zati bat edo batzuk aldamenekoak ez izatea. Bertan, laborantza bera egiten da, antzeko laborantza-jardunbideei jarraituz eta nahiko aldi berean, tratamendu fitosanitario berberak aplikatuz eta ustiategiaren titular bakarrak kudeatuta. Teknikari arduradunak erabakiko du partzela bat jarduketara zedarrituetan banatu behar den ala ez.

Definizio hau luzatu egin ahal izango da laborantza-eremuen berezitasunen arabera, laborantzako berariazko arau teknikoetan, bereziki.

1.3.– Laborantza erregistratzea: operadore-ekoizleen kasuan, produktu bat Ekoizpen Integratuko gisa ziurtatu ahal izateko, espeziearen ekoizpen-orientazio bereko ustiatetikiko laborantza-unitate guztiak Ekoizpen Integratuko sisteman erregistratu behar dira.

1.4.– Aplikazio-eremua: araudi honen baldintza orokorrak, laborantzarekin lotura zuzenik ez dutenak, ustiategi osoan bete behar dira. Baldintza orokortzat hartzen dira instalazio, ekipo eta langileen, hondakinen

de los requisitos aplicables al productor en la presente Norma.

– Técnico responsable del centro de manipulación: persona, con cualificación técnica o con experiencia profesional, designada por la empresa para responsabilizarse en asesorar, dirigir y controlar el cumplimiento de los requisitos aplicables al manipulador en la presente Norma.

– Titular de la explotación; productor: persona física o jurídica que ejerce la actividad agraria organizando los bienes y derechos integrantes de la explotación con criterios empresariales y asumiendo los riesgos y responsabilidades civil, social y fiscal que pueden derivarse de la gestión de la explotación.

– Ventilación cenital: sistema de ventilación ubicado en la cubrera de los invernaderos.

Estas definiciones se podrán ampliar en las Normas Técnicas Específicas de cada cultivo.

CAPÍTULO I REQUISITOS PREVIOS

Artículo 1.– Condicionantes del registro.

1.1.– Disposición del técnico: el operador, tanto productor como manipulador debe disponer de los servicios de un técnico responsable acreditado cuyas funciones serán asesorar, dirigir y controlar el cumplimiento de esta norma general y las normas específicas del cultivo que sean aplicables. Las acreditaciones de cualificación técnica en materia de Producción Integrada serán expedidas por los Departamentos responsables de la materia de Agricultura de las Diputaciones Forales.

1.2.– Definición de unidades de cultivo: con carácter normativo, la unidad de cultivo acogida a la Producción Integrada se define como la unidad de superficie cultivada, formada por una o varias porciones de terreno que podrían no ser contiguas en las que se realiza el mismo cultivo, siguiendo prácticas de cultivo similares y de forma mas o menos simultánea, aplicando los mismos tratamientos fitosanitarios y gestionada por un único titular de explotación. La necesidad de subdividir una parcela por actuaciones localizadas se dejará a criterio del técnico responsable.

Esta definición se podrá ampliar según las particularidades del cultivo, en las Normas Técnicas Específicas del Cultivo en particular.

1.3.– Registro del cultivo: en el caso de los operadores-productores, para que un producto pueda ser certificado como de Producción Integrada, todas las unidades de cultivo de la explotación con esa misma orientación productiva de la especie, deberán registrarse en el sistema de Producción Integrada.

1.4.– Ámbito de aplicación: los requisitos de la presente normativa considerados generales, no relacionados directamente con el cultivo, se tienen que cumplir en la totalidad de la explotación. Se consideran requisitos

kudeaketaren, ingurumena babestearen, prestakuntza-
ren eta agiri honen identifikazio eta trazabilitatearen
kapituluetan jasotakoak.

1.5.– Txandaketako laboreak: partzela batean Ekoiz-
pen Integratuan erregistratutako laboreak erregistratu
gabekoekin txandatzen badira, ekoizleak frogatu behar-
ko du egindako laborantza-jarduerak ez dutela arriskuan
jartzen atxikitako laborantzan Ekoizpen Integraturako
araudia betetzea.

II. KAPITULUA INSTALAZIOAK, EKIPOAK ETA LANGILEAK

2. artikulua.– Ordena eta garbitasuna.

2.1.– Ordena- eta garbitasun-egoera: instalazioek,
ekipoek eta ekoizpen-inguruneak baldintza egokietan
egon behar dute, eta ordena- eta garbitasun-egoera ego-
kian mantendu behar dira.

2.2.– Produktu kimikoen eta hondakinen presentzia:
debekatua dago produktu kimikoak (ongarriak, erre-
gaiak, produktu fitosanitarioak, garbiketa-produktuak,
etab.) eta hondakinak bildutako produktua lantzen
den gunean eta biltegitartzeko eta egokitzeko guneetan
biltegitartzea.

2.3.– Erabilitako metodoak eta produktuak: pro-
duktuak biltegitartzeko tokiak garbitu, desinfektatu eta
bertako intsektuak eta arratoiak hiltzea baimenduta
dauden metodo eta produktuak erabiliz egin behar da,
elikagaietan inolako kutsadurarik ez gertatzeko moduan.

3. artikulua.– Berotegiak eta beste babes egitura
batzuk.

3.1.– Berotegien identifikazioa: berotegi-egiturak,
azpizatiketa posibleak barne hartuta (nabeak, urezta-
tze-sektoreak, laborantza-korridoreak, etab.), bisualki
seinaleztatu behar dira eremuan, identifikatzailea eta
guztizko azalera adierazita.

3.2.– Aldapa: ezin da berotegi-instalazio berririk
egin (ikusitako definizioa) % 20tik gorako aldapetan.

3.3.– Laborantzak bereiztea: fisikoki bereizi behar
dira berotegi bereko laborantzak, kutsadura kimiko
gurutzurako arriskurik egon ez dadin.

3.4.– Haize-babesa: fruta-laboreetan, gomendagarria
da haize-babes begetalak behar bezala erabiltzea.

3.5.– Proiektu teknikoa: instalazio berriak jartzeko
proiektu teknikoa edukitzea gomendatzen da.

3.6.– Estalkiak:

a) Estalkia egoera onean mantendu behar da.

b) Nahitaezkoa da material birziklagarriak edo, on-
dorengoetan sartuta ez egon arren, birzikla daitezke-

generales los incluidos en los capítulos de instalaciones,
equipos y personal, gestión de residuos, protección me-
dioambiental, formación e identificación y trazabilidad
de este documento.

1.5.– Cultivos en la rotación: si en una parcela se ro-
tan cultivos registrados en la Producción Integrada con
cultivos no registrados, el productor deberá justificar
que las prácticas de cultivo realizadas no comprometen
el cumplimiento de la normativa de Producción Inte-
grada en el cultivo acogido.

CAPÍTULO II INSTALACIONES, EQUIPOS Y PERSONAL

Artículo 2.– Orden y limpieza.

2.1.– Estado de orden y limpieza: las instalaciones,
equipos y entorno productivo deben encontrarse en
buenas condiciones y mantenerse en un adecuado esta-
do de orden y limpieza.

2.2.– Presencia de productos químicos y desechos:
se prohíbe el almacenamiento de productos químicos
(abonos, combustibles, productos fitosanitarios, pro-
ductos de limpieza etc.) y residuos o desechos en la zona
de cultivo y en las zonas de almacenamiento y acondi-
cionamiento del producto recolectado.

2.3.– Métodos y productos utilizados: la limpieza,
desinfección, desinsectación y desratización de los luga-
res de almacenamiento se debe realizar con métodos y
productos autorizados, y de forma que no se produzca
ningún tipo de contaminación de los productos ali-
mentarios.

Artículo 3.– Invernaderos y otras estructuras de pro-
tección.

3.1.– Identificación de los invernaderos: las estruc-
turas de invernaderos, incluidas las posibles subdivisio-
nes (en naves, sectores de riego, pasillos de cultivo etc.)
deben señalizarse visualmente en campo, indicando el
identificativo y la superficie total.

3.2.– Pendiente: no se permiten nuevas instalaciones
de invernaderos (ver definición) en pendientes superio-
res al 20%.

3.3.– Separación de cultivos: se deben separar fí-
sicamente los cultivos en un mismo invernadero, de
manera que no exista riesgo de contaminación química
cruzada.

3.4.– Cortavientos: en cultivos frutales, es recomen-
dable manejar correctamente cortavientos vegetales.

3.5.– Proyecto técnico: se recomienda disponer de
un proyecto técnico en la implantación de nuevas ins-
talaciones.

3.6.– Cubiertas:

a) Se debe mantener la cubierta en buenas condi-
ciones.

b) Es obligatorio utilizar materiales reciclables o,
cualquier otro no incluido entre los siguientes, que se

nak erabiltzea: iraupen luzeko polietilenoa, etileno binil azetato kopolimeroa (EVA), kristala, hiru geruzako plastikoak, polikarbonatoa (PC), polietileno tereftalatoa (PET), metil polimetakrilatoa (PMMA).

c) Debebatua dago PVCa instalazio berrietarako estalkiko material gisa eta estalki zaharren berrikuntzan erabiltzea.

3.7.– Sarbideak.

a) Tunel anitzeko eta kapera anitzeko berotegi-instalazio berrietan (ikus definizioa) sartzeko bi ate eduki behar dira ohiko sarbideetan.

b) Instalazio berrizat hartzen ez diren tunel anitzeko eta kapera anitzeko berotegietan ohiko sarbideetan sartzeko bi ate jartzea gomendatzen da.

3.8.– Giroa kontrolatzea:

a) Giroa kontrolatzeko sistema automatizatu duen berotegi-instalazioetan, hura erabiltzeko jarraibideen erregistroa edukitzea.

b) Jarri berriak diren tunel anitzeko eta kapera anitzeko berotegiek aireztapen zenitala eduki behar dute. Instalazio berriak ez badira, eta zabalera eta luzera 50 m-tik gorakoak badituzte, alboko aireztapena eduki behar dute gutxienez.

c) Jarri berriak diren tunel hotzek ez dute 50 m-tik gorako luzera estalirik izan behar.

d) Berotegiaren erabileraren jarraipena egiteko erregistroa edukitzea gomendatzen da: aireztapenak irekitzea, ixtea, etab.

e) Babesaren barruan bertako tenperatura eta hezetasuna neurtzeko ekipo bat jarrita edukitzea gomendatzen da.

f) Babespean landutako landareak haien tenperatura biologikoki hoberenak diren hezetasun, tenperatura eta eguzki-erradiazio egoeran edukitzea ahalegina egingo da.

4. artikulua.– Ureztapen sistema.

4.1.– Diseinua: partzela bakoitzerako diseinatu behar da ureztapen-sistema.

4.2.– Ureztapen-teknika:

a) Uraren erabileran eraginkortasunik handiena eta baliabide hidrikoen optimizazioa bermatzen duten ureztapen-teknikak erabili behar dira, ur-galerak saihestuz. Ureztatzea beharrezkoa bada, aspertsio edota tanta-jario bidez egingo da, laborantzaren berariazko arau teknikoan zehazturikoaren arabera.

b) Gomendagarria da laborantzarekin bateragarria den ahalik eta ur-kopuru txikiena kontsumitzeko aukera ematen duen sistema eraginkor bat erabiltzea.

4.3.– Funtzionamendu-egoera.

a) Ureztapenerako instalazioa urtero aztertu behar da, behar den moduan ibil dadin.

pueda reciclar: polietileno de larga duración, copolímero de etileno vinilo acetato (EVA), cristal, plásticos tricapa, policarbonato (PC), politereftalato de etileno (PET), polimetacrilato de metilo (PMMA).

c) Se prohíbe utilizar PVC como material de cubierta para nuevas instalaciones y en la renovación de viejas cubiertas.

3.7.– Accesos.

a) En nuevas instalaciones de invernaderos (ver definición) del tipo multitúnel y multicapilla se debe disponer de doble puerta de entrada en los accesos habituales.

b) En los invernaderos del tipo multitúnel y multicapilla no considerados de nueva instalación se recomienda la instalación de doble puerta de entrada en los accesos habituales.

3.8.– Manejo climático:

a) Se debe llevar un registro de consignas de manejo climático en aquellas instalaciones de invernaderos que posean sistemas automatizados.

b) Los invernaderos multitúnel y multicapilla de nueva instalación deben disponer de ventilación cenital. En el caso de no ser de nueva instalación, dispondrán como mínimo de ventilación lateral si la longitud en ancho y largo es superior a 50 metros.

c) Los túneles fríos de nueva instalación no deben tener longitudes cubiertas superiores a 50 metros.

d) Se recomienda llevar un registro del seguimiento del manejo del invernadero: apertura de ventilaciones, cierres, etc.

e) Se recomienda tener instalado en el interior de la protección un equipo de medida de la temperatura y humedad relativa de la atmósfera.

f) Se procurará que las plantas cultivadas bajo protección se encuentren en las condiciones de humedad, temperatura y radiación solar incidente lo más cercanas que sea posible a sus óptimos biológicos.

Artículo 4.– Sistema de riego.

4.1.– Diseño: el sistema de riego debe diseñarse para cada parcela.

4.2.– Técnica de riego:

a) Se deben utilizar técnicas de riego que garanticen la mayor eficiencia en el uso del agua y la optimización de los recursos hídricos, evitando las pérdidas de agua. En caso de ser necesario riego, éste será por aspersion y/o goteo, en función de lo especificado en la Norma Técnica Específica del cultivo.

b) Es recomendable utilizar cualquier sistema eficaz que conduzca al consumo de la mínima cantidad de agua posible compatible con el cultivo.

4.3.– Estado de funcionamiento.

a) Se debe revisar anualmente la instalación de riego para mantener su buen estado de funcionamiento.

b) Ureztapen-sistemak, instalatzen den unean eta jardunean dagoen bitartean, % 80ko uniformetasun-koefizientea izatea gomendatzen da. Estaldura finkoa edo ureztatzeko kanoia duten instalazioek % 70eko uniformetasun-koefizientea eduki beharko lukete gutxienez.

c) Kanpoko aspertsio bidezko ureztapenean, zorro luzagarria pita handian jartzea gomendatzen da haizearen abiadura 2 m/s-tik gorakoa denean, 3-4 bar arteko presioak erabiltzea, aspertsoreetan pita-kopuru bera eta tamaina berekoak ezartzea eta, azkenik, adar bereko lehenengo eta azken aspertsoreen arteko presio-aldea % 20tik beherakoa izatea lortzea.

5. artikulua.– Produktu fitosanitarioen eta ongarrien biltegia.

5.1.– Ezaugarriak:

a) Produktu fitosanitarioak biltzeko lekuak giltzaz itxita egon behar du, independentea, solidoa eta lehorra izan behar du, aireztapen iraunkorra izan behar du, baita behar adinako argizatze egokia ere, suteen aurkako babes-baliabidez hornitua.

b) Produktu fitosanitarioen biltegiak eguraldi txarrekiko erresistentea izan behar du.

c) Apalategiak xurgatzaileak ez diren materialez eginak izatea gomendatzen da.

5.2.– Seinaleztapena: ongarrien eta produktu fitosanitarioen biltegiak behar bezala seinalatzatuta egon behar du. Biltegiratze-lokalen kasuan bereziki nabarmendu behar da bertara sartzea debekatuta dutela baimenik ez duten pertsonak.

5.3.– Atxikitzeko baliabideak: ongarrien eta produktu fitosanitarioen biltegian baliabideak eduki behar dira, leku finko eta seinalatzatu batean, ustekabeen izan daitezkeen isuriak atxikitzeko.

5.4.– Isolamendua: produktu fitosanitarioak eta ongarriak landare-materialetik eta produktu freskoetatik bereizita eta ur-iturrien kutsadura-arriskurik gabe gordetako dira biltegian.

5.5.– Ongarriak eta produktu fitosanitarioak bereiztea:

a) Biltegian, produktu fitosanitarioek eta ongarriek behar bezala ordenatuta egon behar dute, beren artean fisikoki bereizita eta behar bezala etiketatuta.

b) Ongarriak gela batean gordetzea gomendatzen da, produktu fitosanitarioetatik bereizita.

5.6.– Jatorrizko bilgarrien kontserbazioa: produktu fitosanitarioak beren jatorrizko bilgarrian mantendu behar dira, eta erraz irakurtzeko moduan eduki behar dute etiketa.

5.7.– Aurkezpen-motaren araberako kokapena: armairuen barruan, fitosanitario-hautsak likidoen gaineko apaletan gorde behar dira.

5.8.– Produktuen inbentarioa:

b) Se recomienda que el sistema de riego tenga en el momento de su instalación y durante su funcionamiento un coeficiente de uniformidad del 80%. En caso de instalaciones con cobertura fija o cañón de riego la uniformidad debería ser al menos del 70%.

c) En el riego por aspersión al aire libre, se recomienda colocar vaina prolongadora en boquilla grande si los vientos superan los 2 m/s., emplear presiones entre 3-4 bares., instalar el mismo número y tamaño de boquillas en los aspersores y por último, conseguir que la diferencia de presión entre el primer y último aspersor del mismo ramal sea inferior al 20%.

Artículo 5.– Almacén de fitosanitarios y fertilizantes.

5.1.– Características:

a) Los productos fitosanitarios deben almacenarse en un lugar cerrado con llave, independiente, sólido y seco, que disponga de ventilación permanente y suficiente e iluminación adecuada, dotado de medios de protección contra incendios.

b) El almacén de los fitosanitarios debe ser resistente a las inclemencias climatológicas.

c) Se recomienda que las estanterías sean de materiales no absorbentes.

5.2.– Señalización: el almacén de fertilizantes y fitosanitarios deberá estar debidamente señalado, en el caso de locales de almacenamiento se tiene que hacer especial hincapié en la prohibición de acceso al mismo de personas no autorizadas.

5.3.– Medios de retención: en el almacén de fertilizantes y fitosanitarios deben existir medios para retener posibles derrames accidentales en un lugar fijo y señalado.

5.4.– Aislamiento: los fitosanitarios y fertilizantes se almacenarán separados del material vegetal y de los productos frescos y sin riesgo de contaminación de las fuentes de agua.

5.5.– Separación fertilizantes y fitosanitarios:

a) En el almacén, los productos fitosanitarios y fertilizantes deben estar debidamente ordenados, separados físicamente entre sí y etiquetados correctamente.

b) Se recomienda que los fertilizantes se almacenen en una habitación separada de los fitosanitarios.

5.6.– Conservación de los envoltorios originales: los fitosanitarios deben mantenerse en su envoltorio original, cuya etiqueta debe ser perfectamente legible.

5.7.– Ubicación según el tipo de presentación: dentro de los armarios, los fitosanitarios en polvo deben almacenarse en estanterías situadas por encima de los líquidos.

5.8.– Inventario de productos:

a) Biltegiatutako produktu fitosanitarioen inbentarioa eguneratuta eduki behar da, produktuen sarrera-eta iteera-datak adierazita.

b) Produktu sanitarioen inbentarioari buruzko dokumentazioa gorde behar da, eta produktuen erosketen eta gastuen fakturak edo egiaztagiriak ustiapen-koadernoan gordeko dira bi urtez.

5.9.– Biltegiatutako produktuen berrikuntza eta ordena:

a) Fitosanitarioen biltegian, laborantzaren eta erabileraren arabera sailkatu behar dira produktuak, gainerakoekin ekoizpen integratuan erabilitakoak bereizita.

b) Ezin dira biltegiatu iraungitako produktu fitosanitarioak, ezta indarreko araudiaren arabera erabili ezin daitezkeenak ere.

6. artikulua.– Tratamendu fitosanitarioetarako ekipoa.

6.1.– Mantentze-lanak eta ikuskapen ofiziala:

a) Produktu fitosanitarioak, herbizidak, hosto-ongarrituak, etab. aplikatzeko erabilitako makinek behar bezala funtzionatu behar dute, eta aldi-aldi aztertu eta kalibratu egin behar dira. Ekoizleak urtero egingo du ikuskapena. Berrikusi egin behar dira laneko mekanismoak (giltzak, zirkuituak, pitak, pastillak, helizeak, iragazkiak, hustuketa- eta irabiatze-sistemak, etab.) eta segurtasunekoak (motxilen uhalak, indar-hartuneeen babesak, barra-hedapenak, etab.) eta, behar izanez gero, aldatu egingo dira. Egiaztapenaren eta mantenimenduzatien erregistro bat egongo da. Horrez gain, lau urtez behin gutxienez, arlo horretako indarreko xedapeneekin bat etorri, erakunde ofizial edo aintzatetsi batek ikuskatuko du, halakorik balego. Zerbitzuak kontratazeko kasuan, indarreko legerian ezarritako ikuskapen eta kalibratzeen jakinaren gainean egotea exijituko die ekoizleak.

b) Urteko ikuskapena teknikari arduradunak gainbegiratzea gomendatzen da.

6.2.– Neurketa-ekipoak: fitosanitarioak neurtzeko ekipo egokiak eduki behar dira, urtero egiaztatutakoak.

6.3.– Ekipoak garbitzea: erabiltzen ez diren ekipoen ez dute produktu fitosanitarioak eduki behar, eta garbi egon behar dute. Aplikazio-lan bakoitza amaitzen denean, upela eta hodiak huts-hutsik utzi behar dira eta, ondoren, uretan pasatu eta iragazkiak garbitu.

6.4.– Makinak gordetzea: makina erabiltzen ez den epealdietan, toki estali batean gorde behar da, lurzorua ukitu gabe, horretarako zurezko altxagarriak edo euskarriak erabiliz.

7. artikulua.– Norbera babesteko ekipamenduak (NBE).

a) Debe mantenerse un inventario actualizado de los productos fitosanitarios almacenados con indicación de las fechas de entrada y salida de los productos.

b) Debe conservarse documentación relativa al inventario de los productos fitosanitarios, manteniéndose las facturas o justificantes de compras y gastos de productos reflejados en el cuaderno de explotación durante 2 años.

5.9.– Renovación y orden de los productos almacenados:

a) En el almacén de fitosanitarios los productos se deben clasificar según cultivo y uso, separando los utilizados en la producción integrada del resto.

b) No se permite almacenar productos fitosanitarios caducados o cuyo uso se ha desautorizado, según la normativa vigente.

Artículo 6.– Equipos para tratamientos fitosanitarios.

6.1.– Mantenimiento y revisión oficial:

a) La maquinaria utilizada en la aplicación de productos fitosanitarios, herbicidas, abonados foliares, etc., debe encontrarse en adecuado estado de funcionamiento y someterse a revisión y calibrado periódico. Anualmente el productor efectuará una revisión. Se deben revisar tanto los mecanismos de trabajo (llaves, circuitos, boquillas, pastillas, hélices, filtros, sistemas de vacío y agitación etc.) como los de seguridad (correas de mochilas, resguardos tomas de fuerza, extensiones barras etc.) cambiándolas si fuera preciso. Existirá un registro de la verificación y de los partes de mantenimiento. Además, al menos una vez cada cuatro años se someterá a revisión por un organismo oficial o reconocido de conformidad con las disposiciones vigentes en la materia, si lo hubiere. En el caso de contratación de servicios, el productor exigirá a éstos estar al corriente de las revisiones y calibrados estipulados en la legislación vigente.

b) Se recomienda que la revisión anual sea supervisada por el técnico responsable.

6.2.– Equipos de medida: se debe disponer de equipos adecuados para medir los fitosanitarios, verificados anualmente.

6.3.– Limpieza de los equipos: los equipos que no se estén usando no deben contener productos fitosanitarios y deben estar limpios. Al final de cada labor, se deberá proceder al vaciado total de la cuba y los conductos para seguidamente enjuagarlos con agua y limpiar los filtros.

6.4.– Almacenamiento de la maquinaria: durante los períodos de tiempo en los que la máquina no sea utilizada, deberá ser alojada en un espacio cubierto y aislada del suelo.

Artículo 7.– Equipos de protección individual (E. P.I.).

Norbera babesteko ekipamenduen bitartekoak: produktu fitosanitarioak aplikatzen dituenak eta, hala badagokio, azpikontratutako edo kontratatutako zerbitzuak, halakorik bada, norbera babesteko ekipamendu egokia eduki behar du, indarreko legeriarekin bat datorrena eta produktu fitosanitarioaren etiketako oharretara egokitua (eskularruak, betaurrekoak, botak, babes-jantzia eta arnasteko babes-ekipamendua).

Norbera babesteko ekipamenduen mantenimendua: arropa eta ekipamendua garbituta jasoko dira erabili ondoren, eta bereizita gordeko dira, aireztatutako leku batean, produktu fitosanitariorik ez ukitzeko moduan.

8. artikulua.– Ongarriak aplikatzeko ekipoa.

8.1.– Funtzionamendu-egoera eta ikuskapenak:

a) Ongarritzatzeko erabilitako makinak funtzionamendu-egoera onean eduki behar dira, aplikatzaileak urteroko ikuskapena eginda, egoki aplikatzen dela ziurtatzeko. Egiaztapenaren eta mantenimendu-zatien idatzizko erregistro bat egongo da.

b) Urteko ikuskapena teknikari arduradunak gainbegiratzea gomendatzen da.

9. artikulua.– Bilketarako ekipoa eta tresnak.

9.1.– Funtzionamendu-egoera eta ikuskapenak: egoera onean eta garbi eduki behar dira bilketa-tresnak eta -ekipoak, landako kaxak, landare-produktuak ukitzen dituzten garbiketa-tresnak eta hondakinak husteko ontziak (xede horretarako baino erabiliko ez direnak); horretarako guztirako garbiketak egin behar dira aldizka, baimenduta dauden produktuak erabiliz.

9.2.– Produktuaren heldutasun-neurgailuak: produktuaren heldutasun-maila ebaluatzeko aukera ematen duten tresna egokiak edukitzea gomendatzen da.

10. artikulua.– Landare produktu eta edukiontzientzako garraiobideak.

